

3. GAIA: KAPITAL SOZIALAREN ZABALKUNTZAK

3.1 SARRERA

Kapital Sozialaren zifrak enpresak bere hartzekodunei eskaintzen dien bermea adierazten du. Oro har, Kapitalaren zenbatekoak produkzio jardueraren edo negozioaren beharrizanarekin orekatuta egon behar du.

Ez da kopuru finko bat; aldaketak jasan ditzake. Enpresak, normalean, kapital txiki batekin hasten dira eta negozioak garrantzia hartzen duen neurrian, handituz joaten da. Beharrizan bereziak dituztenean, hala nola, enpresaren jarduera zabaltzean, merkatu berrietara zabaltzean, produktu berriak ekoiztean, produkzio ahalmena zabaltzean, finantzaketa oreka berreskuratu behar denean, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak estali behar direnean, eta abar, kapital zabalkuntzak egin ahal izango dituzte.

Aipatutako edozein egoeren ondorioz enpresak finantzaketa behar badu eta berak sortutako baliabideak nahikoak ez direnean, bi finantzaketa bide agertzen dira:

- Kanpoko finantzaketa: maileguak eskatu, leasing bidez finantzatu, jesapenak jaulki, kreditu-lerroak negoziatu...
- Finantzaketa propioa: enpresako bazkideengandik baliabide berriak lortzea, edo bazkide berriak bilatzea.

Bigarren aukera honetan, enpresak kapital sozialaren zenbatekoa aldatu egin beharko du bazkideen ekarpen berrien balioa adierazteko.

3.2 KAPITAL ZABALKUNTZARAKO BETEBEHAR OROKORRAK

3.2.1 Betebehar juridikoak

Erreferentzia legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII Titulua, II. Kapitulua, 295-315 art.

Estatutuetan, besteak beste, kapital soziala, balio nominala, titulu kopurua, etab. agertzen dira. Hori dela eta, kapital sozialaren zenbatekoa aldatzeak estatutuen aldaketa ekarriko du, eta beraz, estatutuen aldaketarako eskatzen diren legezko baldintzak bete beharko dira. Zabalkuntza Batzar Orokorrak onartu behar du eta Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginak dioena bete behar da (313. art.).

3.2.3 Betebehar ekonomikoak

- Sozietate Anonimoek kapital zabalkuntza egiteko, ondorengo baldintza bete beharko dute: zabalkuntza eskudirutan egingo diren despoltsapen berriekin egiten bada, beharrezkoa da aurretik igorrita zeuden akzioak guztiz despoltsatuta egotea (aseguru sozietateentzat salbu). Hala ere, legeak onartzen du gehienez kapital sozialaren %3 despoltsatu gabe egotea.

- ΔKS adierazten duten akzio guztiak harpidetu beharko dira.
- Kapital Sozialaren zabalkuntza egin ondoren, akzio bakoitzaren baliotik gutxienez, BN%25 (hau da KS berriaren) eta primaren %100 despoltsatuta egon behar dira.

3.3 AKZIODUN ZAHARREN BABESTEA

Titulu baten BALIO TEORIKOA (*kontabilitate balioa* edo *kontabilitate balio teorikoa* ere deiturikoa), titulu bakoitzari kontabilitatearen arabera, ondaretik dagokion partaidetza da:

$$\text{Balio Teorikoa} = \text{Ondare Garbia} / \text{Titulu kopurua}$$

Enpresa baten “Ondare Garbia” kontabilitate agirietatik lortzen den balioespena da. Hau da, kontabilitate printzipioak aplikatu eta gero lortu dena. Era honetara, KPOk adierazitako Ondare Garbia ondorengo izango litzateke:

ONDARE GARBIA	
+Fondo Propioak	Kapital eskrituratua -Kapital galdatu gabea Jaulkipen Prima Erreserbak -Akzio eta ondare-partaidetza propioak Bazkideen bestelako ekarpenak Ekitaldiko emaitza -Konturako dibidendua
+balio-aldaketengatik doikuntzak	
+Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	

“Ondare Garbia” zenbait elementuren batuketa bada ere, KPOn biltzen den definizioaren arabera, Ondare Garbia kenketa baten emaitza da: aktiboari pasiboa kendu ondoren geratzen den aberastasuna.

Enpresaren ondarea osatzen duten elementuak aldatu egiten direnean, gerta daiteke akzioen balio teorikoa ere aldatzea. Era honetan, kapital zabalkuntza bat egiten denean, posible da balio teorikoa aldatzea eta hori gertatuko balitz, balioa akzio kopuru handiago baten artean banatuko litzateke. Horrelakoetan bazkide zaharra kaltetua izan daiteke eta hau gerta ez dadin Legeak babes-neurriak arautu ditu, geroago ikusiko direnak.

1. Adibidea (a):

KARRAMARRO, S.A. sozietateak ondorengo Balantzea dauka:

KARRAMARRO, S.A. BALANTZEA			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO KORRIENTEA eta EZ KORRIENTEA	14.700.000	<u>ONDARE GARBIA</u>	<u>10.100.000</u>
		Kapital Soziala	7.500.000
		Erreserba Legala	750.000
		Estatutu Erreserba	750.000
		Borondatezko Erreserba	1.000.000
		Gaineratikoa	100.000
		PASIBOA	4.600.000
GUZTIRA	14.700.000	GUZTIRA	14.700.000

BN= 10€ izanik, zein da titulu bakoitzaren balio teorikoa? Zergatik?

1. Adibidea (b):

KARRAMARRO, S.A. sozietateak kapital zabalkuntza egingo du balio nominal berdineko 150.000 titulu berri jaulkiz. %100 despoltsatuko dira eta ez dago zabalkuntza gasturik.

BALANTZEA (zabalkuntza ondoren)				ONDARE GARBIA:	11.600.000
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa			
AKTIBOA	16.200.000	ONDARE GARBIA	11.600.000	Kapital Soziala JAULKIPEN PRIMA (PAREAN) Erreserba Legala Estatutu Erreserba Borondatezko Erreserba Gaineratikoa	
		PASIBOA	4.600.000		
GUZTIRA	16.200.000	GUZTIRA	16.200.000		

Zein da akzio bakoitzaren balio teorikoa zabalkuntza egin ondoren? Zergatik?

Akziodun zaharraren egoera	Lehen	Ondoren
Partaidetza ekonomikoa		
Partaidetza politikoa		

Akziodun zaharra babesteko, legeak dituen neurriak bi hauek dira:

- a) Lehentasun Harpidetza Eskubidea
- b) Jaulkipen Prima

3.3.1 Lehentasun Harpidetza Eskubidea (LHE)

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII Titulua, II. Kapitulua, III. Atala, 304-308 art.

Kapital zabalkuntza bat egiten denean, bazkide zaharrari zabalkuntza aurretik zeukan kapitalaren proportzioa mantentzeko aukera ematen zaio: akzio berriak lehentasunez harpidetzeko eskubidea dauka. Horretarako, akzio zahar bakoitzak lehentasun eskubide bat izango du, eta eskubide hau negoziagarria da (legeak adierazitako salbuespen egoeretan izan ezik, hala nola, xurgapenetan, obligazioak akziotan bihurtzean, etab).

1. Adibidea (c):

KARRAMARRO, S.A. sozietatean, 100 akzio zahar dituen akziodunari zenbat eskubide dagozkio? Eta, zenbat akzio berri harpidetu ditzake?

3.3.1.1 Lehentasun harpidetza eskubidearen (LHE) kalkulua

Era ezberdinetara kalkula daitekeenez, ondorengo laburduren esanahia adieraziko dugu:

OG= Ondare Garbia
BT = Balio Teorikoa zabalkuntza aurretik
BT' = Balio Teorikoa zabalkuntza ondoren
Z= titulu zahar kopurua
B = titulu berri kopurua
E= titulu berriengatik despoltsatu beharrekoa (ez du balio teorikoaren berdina izan behar)
K = Zabalkuntzaren aurreko eguneko kotizazioa

Lehentasun Harpidetza Eskubidea kalkulatzeko modu bat, balio teorikoen diferentziagatik izan daiteke, hau da:

LHE= BT- BT'	
Non:	
BT= OG/Z	BT'=(OG+B*E)/Z+B
OG= BT*Z	BT' = (BT*Z+B*E)/Z+B

Zabalkuntza ondorengo balio teorikoa (BT') ezagutzen ez denean, ondorengo kalkulua egin daiteke:

$$\mathbf{BT' = (OG+B*E)/Z+B}$$

Eta hainbat kalkulu egin ondoren, ondorengo formula lortzen da:

$LHE = \frac{B * (BT - E)}{Z + B}$
NON:
$LHE = BT - BT' = BT - \frac{BT * Z + B * E}{Z + B}$
$LHE = \frac{(BT * Z + B * E) - (BT * Z + B * E)}{Z + B}$
$LHE = \frac{(BT * B) - (B * E)}{Z + B}$

Kotizatzen duten enpresen kasuan, eskubideen balioa kalkulatzeko akzioaren kotizazioa erabil daiteke:

$$\mathbf{LHE = \frac{B * (K - E)}{Z + B}}$$

1. Adibidea (d):

KARRAMARRO, S.A. sozietatearen Lehentasun Harpidetza Eskubidearen zenbatekoa kalkulatu.

3.3.1.2 LHE, akziodun zaharraren ikuspegitik

Akziodun zaharrak, kapital zabalkuntza baten aurrean bi aukera ditu:

1. Zabalkuntzara joan. Era honetan, titulu berriak harpidetuko ditu akzio zaharren ondorioz dituen eskubideak erabiliz eta sozietateak despoltsatzeko eskatu duena emanaz.
2. Zabalkuntzara ez joan. Era honetan, ez du titulu berririk harpidetuko, ondorioz ez du ezer despoltsatu behar, eta akzio zaharren ondorioz dituen eskubideak saldu egin ditzake.

1. Adibidea (e):

KARRAMARRO, S.A., sozietatearen akziodun zahar batek 100 akzio ditu. Azaldu zenbat eskubide dagozkion eta zein izango den bere ondarea kapital zabalkuntzara baldin badoa eta zein, ez badoa.

Adibidearen emaitzarekin ikusten denez, zabalkuntzara joan zein ez joan, akziodun zaharraren ondarea berdina da. Ondorioz, lehentasun harpidetza eskubidearekin akziodun zaharraren interes ekonomikoak babestu egiten direla frogatu da.

3.3.1.3 LHE, Akziodun berriaren ikuspegitik

Akziodun berriek titulu berriak harpidetu nahi badituzte, beharrezkoak dituzten eskubideak eskuratu behar izango dituzte.

1. Adibidea (f):

KARRAMARRO, S.A., sozietatearen akziodun berri batentzat, akzio bat erosteak ze kostu adierazten du?

3.3.1.4 Lehentasun Harpidetza Eskubidearen ezaugarriak (304-308 art.)

- ✓ Noiz agertzen den LHEa: kapital zabalkuntza batean titulu berriak jaulkitzen direnean.
- ✓ Nortzuek daukaten LHE: akziodun zaharrek.
- ✓ LHE gauzatzeko/erabiltzeko epea: SAen kasuan gutxienez 15 egunetako epea (gainontzeko sozietateetan hilabete bat) Merkataritza Erregistroko Buletin Ofizialean zabalkuntzaren berri argitaratzen denetik hasita. Iraupen zehatza Administrazio Kontseiluak erabakitzen du.
- ✓ LHE noiz ez den existitzen edo noiz baztertzten den:
 - NORR: Bazkideen Batzar Orokorrek erabaki beharko luke, beti ere sozietatearen interes orokorrak horrela eskatzen duenean.
 - EGOERAK: sozietateen xurgapen kasuetan (besteak beste).

3.3.2 Jaulkipen prima (298. art.)

Akzioen jaulkipenean Balio Nominalaren gainetik eskatzen den balioa da:

$$\text{Jaulkipen prima} = \text{JB} - \text{BN}$$

Primari dagokion zenbatekoa osorik despoltsatu beharko da.

HELBURUA: Δ KS batean akziodun berriek ekartzen dutena eta jasoko dutena parekatzea. Hau da, akziodun zaharren egoera babestea, LHerekin gertatzen den bezala.

3.4 KAPITAL ZABALKUNTZAK EGITEKO MODU EZBERDINAK

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, II. Kapitulua, I. Atala, 295-296 art.

- **Prozeduraren arabera:**
 - ✓ Akzio berriak jaulkiz.
 - ✓ Zirkulazioan dauden akzioen balio nominala handituz.
- **Despoltsaketaren arabera:**
 - ✓ Ekarpin berriekin (dirutan zein diru ez direnak)
 - ✓ Mozkinen edo erreserben kargura
 - ✓ Sozietateak dituen zorren kargura

3.5. KAPITAL ZABALKUNTZEN TRATAMENDU KONTABLEA

Zabalkuntzaren ondorioz jasan behar diren gastuek (notarioa, tituluak merkaturatzeko gastuak, etab.), kapital zabalkuntza egiteko modua kontuan izan gabe, erreserbak murriztu egingo dituzte, sozietateen eraketan gertatzen den bezala (KPO, 9. araua, 4. atala):

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(57) Diruzaintza (11) Erreserba Libreak		(100) Kapital Soziala	

3.5.1.- Kapital zabalkuntzak despoltsapen berriekin**3.5.1.1 Dirutan Ekarpinak**

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, II. Kapitulua, II. Atala, 299. art.

Aldez aurretik igorritako akzioak guttiz despoltsatuta egon behar dira. Hala ere, kotizatzen duten sozietateen kasuan onartzen da gehienez kapital sozialaren %3 oraindik despoltsatu gabe egotea.

A.- Titulu berriak jaulkiz

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
Min KS%25+JP100%	(57) Diruzaintza (103) Bazk, galdatu gabeko		(100) Kapital Soziala (Tit kopurua. x BN) (110) Jaulkipen Prima	

	despoltsapenengatik		(JP x Tit kopurua)	
--	---------------------	--	--------------------	--

B.- Balio nominala handituz. Aukera honetan, ezinbesteko baldintza izango da bazkide guztien oniritzia izatea, %100 liberatuak ez badira behintzat.

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(57) Diruzaintza (103) Bazk, galdatu gabeko despoltsapenengatik		(100) Kapital Soziala	

3.5.1.2 Diru ez diren ekarpenak

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, II. Kapitulua, II. Atala, 300. art.

Sozietateen eraketan bezala, kapital zabalkuntza diru ez diren ekarpenekin despoltsatzen bada, beharrezkoa izango da merkataritza erregistratzaileak izendatutako adituaren balioespen-txostena (Sozietate Anonimoen kasuan).

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	Aktiiboak (104) Bazkideak, oraindik egin gabeko diru ez diren ekarpenengatik (103) Bazk, galdatu gabeko despoltsapenengatik		(100) Kapital Soziala (Tit kopurua x BN) (110) Jaulkipen Prima (JP x Tit kopurua)	

Hasierako despoltsapena partziala bada (legeak adierazitako minimoa errespetatuz), beharrezkoa da ondorengo despoltsapenak nola egingo diren azaltzea. Diru ez diren ekarpenen bidez egiten badira, hauek gehienez bost urteko epean gauzatu beharko dira (80. art.).

Adibidea:

EKIALDE S.A. sozietatearen kapital zabalkuntza kontabilizatu. Datuak hauek dira:

KS = 5.000.000€, BN = 5€; 1.000.000 tit.; hasierako despoltsapena %100.

Kapital zabalkuntza BN 10€ra handituz.

- A) Despoltsapenaren %50 eskudirutan egingo da.
- B) Despoltsapenaren gainontzeko %50 lur batzuen bidez egingo da. Lurren balioa merkataritza erregistratzaileak izendaturiko adituaren arabera 2.500.000€koa da.

3.5.2.- Kapital zabalkuntzak mozkinen edo erreserben kontura

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, II. Kapitulua, II. Atala, 303. art.

Eragiketa hau dibidenduen banaketa ordezkatzeko duen eragiketa da eta enpresaren fondo propioetan soilik eragiten du. Ondare garbiko elementuen arteko aldaketa bat besterik ez da.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Erreserba libreak eta Jaulkipen prima, inolako murrizketarik gabe erabili ahal izango

dira.

- Erreserba legala, kapital berriaren %10 gainditzen duen kopuruan soilik erabili ahal izango da.

Zabalkuntza hauek guztiz liberatuak edo partzialki liberatuak izan daitezke:

- Guztiz liberatua denean, eskuratzen diren titulu berriengatik ez da inolako despoltsapenik egin behar:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(113) Borondatezko Erreserba (110) Jaulkipen Prima *(112) Erreserba Legala	a	(100) Kapital Soziala	

*Gehienez: kapital berriaren %10 gainditzen duen kopurua.

- Zabalkuntza partzialki liberatua denean, titulu berriak eskuratzean despoltsapena bai egin behar da eta sozietateak erabakiko du zenbatekoa:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(113) Borondatezko Erreserba (110) Jaulkipen Prima *(112) Erreserba Legala (57) Diruzaintza (103) Bazk, galdatu gabeko despoltsapenengatik	a	(100) Kapital Soziala	

*Gehienez: kapital berriaren %10 gainditzen duen kopurua.

Adibidea:

EGUZKITXU, S.A. sozietateak ondorengo kontuak aurkezten ditu bere fondo propioetan:

Kapital Soziala	70.000
(BN = 10€; 7.000 titulu; % 100 despoltsatuta)	
Jaulkipen Prima	1.000
Erreserba Legala	9.000
Borondatezko Erreserba	5.000
Guztira	85.000
GUZTIRA FONDO PROPIOAK	85.000
GUZTIRA ONDARE GARBIA	85.000

Enpresa honek kapital zabalkuntza egitea erabaki du, proportzioa hau izanik: titulu berri bat 7 zaharren trukean, parean.

Zabalkuntzaren zenbatekoa guztiz liberatua izan daiteke?

- EMSen kasuan?
- SAen kasuan?
 - Erreserba Legala erabili gabe
 - Erreserba legala erabiliz (legeak adierazitako mugak betez).

3.5.3.- Kapital Zabalkuntza sozietateak dituen zorren kontura

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, II. Kapitulua, II. Atala, 301. art.

Baldintzak:

- Zor hauen %25 gutxienez likidoa, epemugatua eta galdagarria izan behar da, eta gainontzeko zorren epemuga gehienez 5 urtekoa.
- Zabalkuntzaren deialdian Auditoreen oharra gehitu beharko da (zorren zenbateko zehatza adierazten duena).

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(17)/(52) Zorrak (400) Hornitzaileak (103)/(104)		(100) Kapital Soziala (BN x tit. berrien kopurua) (110) Jaulkipen Prima (JP x tit. berrien kopurua)	

3.5.4.- Kapital zabalkuntza egiteko beste aukera batzuk

Atal honetako adibide bat obligazioak akziotan bihurtzea da, aldez aurretik sozietateak igorritako obligazioak aldagarriak baldin badira.

OHARRA:

ARIKETA GUZTIAK EGITEKO, AKZIOAK ARRUNTAK DIRELA SUPOSATUKO DA.